



INFANTILEN EUSKADIKO ERRENDIMENDUKO I FUTBOL TXAPELKETA

Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaritzak Infantilen Euskadiko Errendimenduko I Futbol Txapelketa antolatuko du, Euskadiko Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin, eta araudi honi atxikiz.

1.- PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK

Hiru lurraldeetako infantil lehen eta bigarren mailako kategoriako ligatako lehen bi talde sailkatuak hartuko dute parte. Hau da, 1996 eta 1995ean jaiotako futbolariak, hurrenez hurren.

Dagokion Foru Aldundiak 2009ko ekainaren 8ko 12.00ak baino lehen igorriko ditu Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaritzara txapelketan parte hartu behar duten taldeen zerrenda.

2.- EGOITZA

Txapelketa hau bi egoitza ezberdinetan ospatuko da. Bigarren mailako infantilen txapelketa Lezamako kirol instalakuntzetan ospatuko da (Bizkaia) eta lehen mailako infantilen txapelketa Zubietako kirol instalakuntzetan (Gipuzkoa).

Talde bakoitzak beroketarako beharrezko dituen baloiak ekarri beharko ditu.

3.- BI KATEGORIETAKO TXAPELKETEN DATAK

Lehen fasea: 2009ko ekainaren 13 eta 14an

Finalaurrekoa eta finala: 2009ko ekainaren 20 eta 21ean

4.- LEHIAKETA SISTEMA

Txapelketa hau bi zatitan garatuko da, kategoria berdineko partidu guztiak egoitza berdinean jokatuko direlarik.

Lehen fasea

Txapelketa honetan parte hartzeko 6 taldek izena ematen dutenez, itzuli bakarreko Liga parte hartzeko modu egokiagoa dela uste izan da; lehenengoak bigarrenen kontra jokatuz eta lurralde bereko taldeen arteko partiduak ekidituz. Lehen lau taldeak sailkatuko dira.

Finalaurrekoa eta finala

Aurreko fasean sailkatutako lau taldeak hartuko dute parte, beraien arteko partidak zozketaz erabakiko dira, lurralde bereko taldeen arteko partiduak ekidituz. Zeinak ekainaren 15ean izango da Euskadiko Futbol Federakundeko egoitzan.

Kanporaketa bakoitzeko talde irabazleak, finala jokatuko dute elkarren kontra.

5.- ORDEZKAPENAK

Partida bakoitzaren zehar, gehienez jokalarien bost ordezkapen egin ahal izango dira, gehinezko zazpi ordezko jokalarien artean. Bai ordezko jokalaria eta bai jokalaria titularren izenak partida hasi aurretik jakin behar ditu epaile taldeak.

6.- PARTIDUEN IRAUPENA

Partiduek hirurogehi eta hamar (70) minutuko iraupena izango dute, hogeiei eta hamabost (35) minutuko bi zatitan banatua eta hamabost (15) minutuko atsedenaldiarekin.

7.- BERDINKETAK

Gerta daitezken berdinketak EFF-FVFeko araudi orokorrak ezartzen duen arabera konponduko dira.

Lehen faseko partidu bakoitzaren amaieran, emaitza edozein delarik ere, penaltien jaurtiketa egingo da, derrigorrez bost taldeko; eta hala ere berdinketarekin jarraitu ezker, jaurtiketekin jarraituko da talde bat irabazle suertatu arte. Taldeen sailkapen orokorrean berdinketa egoera bat konpontzeko bakarrik erabili izango da azken emaitza hau.

Finalaurreko eta finaleko partiduetan, berdinketa izanez gero, penalti jaurtiketa segida bat botako da.

8.- ARBITRAIAK

Euskadiko Futbol Federazioko Arbitroen Euskal Batzordeak partiduak ospatuko diren Lurralde Federazioko epaileak izendatuko ditu partiduak zuzentzeko.

9.- GARAIKURRAK

Talde txapeldun eta txapeldunordeari emango zaie garaikurra.

10.- DIZIPLINA BATZORDEA

Partiduak amaitzean, epaileen aktak Euskadiko Futbol Federaziora bidaliko dira, hala behar izanez gero, Diziiplina Batzordeak bere epaia luza dezan.

BIGARREN MAILAKO INFANTILAK (1995ean JAIOTAKOAK)

LEHEN FASEA

LEZAMAKO KIROL INSTALAKUNTZAK

EGUTEGIA

2009.06.13

Arabako 1.a - Gipuzkoako 2.a **10,00etan**

Bizkaiako 1.a - Arabako 2.a **12,00etan**

Gipuzkoako 1.a - Bizkaiako 2.a **16,00etan**

2009.06.14

Arabako 1.a - Bizkaiako 2.a **10,00etan**

Bizkaiko 1.a - Gipuzkoako 2.a **12,00etan**

Gipuzkoako 1.a - Arabako 2.a **16,00etan**

FINALAURREKOAK

2009.06.20

1go. Finalaurrekoa **10.00etan**

2. Finalaurrekoa **12.00etan**

FINALA

2009.06.21

12.00etan

**LEHEN MAILAKO INFANTILAK (1996an JAIOTAKOAK)****LEHEN FASEA****ZUBIETAKO KIROL INSTALAKUNTZAK****EGUTEGIA****2009.06.13**Arabako 1.a - Gipuzkoako 2.a **10,00etan**Bizkaiako 1.a - Arabako 2.a **12,00etan**Gipuzkoako 1.a - Bizkaiako 2.a **16,00etan****2009.06.14**Arabako 1.a - Bizkaiako 2.a **10,00etan**Bizkaiako 1.a - Gipuzkoako 2.a **12,00etan**Gipuzkoako 1.a - Arabako 2.a **16,00etan****FINALAURREKOAK****2009.06.20**1go. Finalaurrekoa **10.00etan**2. Finalaurrekoa **12.00etan****FINALA****2009.06.21****12.00etan**